



## EGUBERRIETAKO AZOKAREN ARAUDIA. 2022. URTEA

### I. KOKAPENA

---

Independentzia kalean instalatuko da (Foru plazatik Urrezko Zeledonen plazara bitartean), eta gehienez ere 35 saltoki hartuko ditu.

Aurten azoka abenduaren 16ko 12:00etatik, 2023ko urtarrilaren 6ra bitartean izango da, biak barne.

Vitoria-Gasteizko Udalak gehienezko saltoki kopurua murrizteko eskubidea izango du, hainbat arrazoiengatik, hala nola unean-unean indarrean dagoen araudi espezifikoak.

### II. MERKATURATUKO PRODUKTUAK

---

**ESKULANAK** bakarrik saldu ahal izango dira.

Azoka honetan, **artisansu-produktutzat** joko dira ekoitzi edo eraldatzeko zein zerbitzuak emateko pertsonak zuzenean esku hartzea ezinbesteko duten produktuak, horrela lortutako amaierako produktua industria produktuetatik bereizten delarik.

**Industria produktutzat** joko dira, berriz, oso-osorik baliabide mekanikoak baliatuz edo serie handitan ekoizitakoak.

### III. ESKAINIKO DIREN ZERBITZUEN EZAUGARRIAK

---

Etxolak, korridore estalia eta kristalez itxia dutenak; kanpoko eta barruko argiztapena; eguneroko garbiketa, berokuntza eta zaintza. Saltokien ezaugarriak eta kokapena aldatu ahal izango dira, antolaketa-beharren eta une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera.

Saltokiak (3 x 2 m gehienez), erakusmahaia dutenak edo irekiak. Eskabidea betetzean aukeratu beharko da.

### IV. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

---

Saltokia eskuratzeko eskabidea egiten delarik, deialdi honen oinarriak onartzen direla esan nahiko du.



Eskaerak **urriaren 4tik 18ra arte** aurkeztu behar dira, leku hauetakoren batean:

- Gasteizko Udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, 01008).
- Herritarrei laguntzeko bulegoak.
- **Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa:**  
**<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>**
- Baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

Telefono bidezko argibideak: 010 eta 945161100.

Eskaera posta ziurtatu bidez Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— bidaltzen denean, bidalketa Postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, baita bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari jakinarazi ere, posta elektronikoz([comercio@vitoria-gasteiz.org](mailto:comercio@vitoria-gasteiz.org)), eta betiere eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehen. Bertan jasota geratu beharko da bidalketa egin dela, baita haren datak ere, eta deialdiaren eskaera-orriaren kopia betea erantsi beharko da. Bestela, ez da eskaria onartuko.

Oro har, ez da salmenta-eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo. Deialdi honetan ezarritako epe ofiziala amaitzean saltokien kopurua baino eskabide gutxiago jaso badira bakarrik onartu ahal izango dira epea igaro ondoren aurkeztutako eskabideak. Halakorik gertatuz gero, saltokien kopurua betetzeko behar beste eskabide hartuko da aintzat, betiere eskabideen erregistro-hurrenkeraren arabera, irizpide gisa eskaera erregistroan sartzeko data jarraituz, azaroaren 30a baino lehen.

**Saltokietako bat gizarteratze-enpresentzako eta/edo bidezko merkataritzarako erreserbatuko da**, baldin eta deialdi honetako betekizunak eta baldintzak betetzen baditu. Saltoki hori betetzeko eskabiderik ez bada, gainerako eskatzaileei eskainiko zaie.

## V. BETEKIZUNAK, AGIRIAK ETA PROZEDURA

---

### A. Betekizunak eta eskaera egiteko prozedura

Agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:



▪ **Nahitaezko agiriak:**

1. **Eskabide-orria, eredu ofizialean. Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzaileak sinatua**, non Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzak eta deialdi honek xedatzen dituzten betebeharrak betetzen direla adierazten baitu. Aitorpena oso-osorik bete beharko da; eskatutako datu guztiak adierazi ezean eskabidea ezetsi egin ahalko da.
2. Titularraren eta titularkidearen **nortasun-agriren fotokopiak**; Europar Batasunaz kanpoko kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako lan eta egoitza baimenenak.
3. Pertsona juridikoen kasuan, eratze-eskrituren fotokopia, eskatzailearen ordezkatzeko-ahalmena eta identifikazio fiskalerako txartelaren fotokopia.
4. Merkaturatuko diren produktuen **deskribapena** eta produktu horien **hiru argazki**.

Azokan parte hartu nahi duten pertsonak erantzukizunpeko aitorpena behar bezala beteta aurkeztu beharko dute nahitaez, bermetik itzultzea dagokien zatia zein kontu korrontetan sartu behar den adierazita; izan ere, bermearekin lotuta egin beharreko ordainketa oro kontu-zenbaki horren bidez egingo da.

▪ **Eskabideak balioesteko eta lehenesteko agiriak**

1. Eskatzailea Eskulangintza Enpresen Erregistro ofizialean izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiri ofizial eguneratua, azoka honetan merkaturatzen dituen produktu guztiei dagokien kategorian.
2. Azken hiru urteetan eskatzaileak –saltokiko titular gisa– 3 eguneko iraupena edo hortik gorakoa duten zenbat eskulangintza azokatan parte hartu duen adierazten duen egiaztargiri ofiziala, antolatzaileek emana. **Azoka amaitu ondorenkoa izan behar du egiaztargiriak, eta egun kopurua edo, hala bada, denbora tartea adierazi beharko da bertan. Ez dira konuan hartuko fakturak edo lizentziak.**
3. Azken hiru urteetan, Europar Batasunean, titularrak marketinari, bezeroari arreta eskaintzeari, saltokiaren irudiari edo eskulangintza ekoizpenari loturiko prestakuntza ikastaroetan parte hartu izanari eta aprobetxamenduari buruzko



egiaztagiri ofiziala. **Ikastaroaren ordu-kopurua agertu behar da egiaztagirian.**

4. Titularrak euskaraz badakiela egiaztatzen duen titulu edo egiaztagiri ofiziala. Ondorio horretarako titulu edo egiaztagiri ofizial dira Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatu daitezkeenak, ez beste, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak —2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219 zk.— xedatutakoari jarraituz.
5. Elbarritasun edo ezintasunen bat duela aitortzeko ziurtagiri ofiziala, eskabidearen titularraren izenean
6. **Merkaturatuko diren produktuen deskribapena, egiteko erabili diren material edo lehengaiak, eta produktuak egiteko prozedura.**

2022ko Andre Maria Zuriaren jaietako azokan edo 2019, 2020 eta 2021eko Eguberrietako Azokan parte hartzeko eskabidearekin batera balioetsi eta lehenesteko 2., 3. eta 4. puntuetan jasotako agiriak aurkeztu zituzten pertsonak ez dituzte berriro aurkeztu behar, agiriak eguneratzeko izan ezean.

Eskabide batean baino gehiagotan ageri diren pertsonak –titular nahiz titularkide gisa– bazter utziko dira, besterik gabe.

**Erakutsitako salgaiak bat etorri behar du eskabidean aurkeztutakoarekin. Horrela ez baldin bada, baimena baliogabetu ahal izango da, bai eta saltokia itxi ere.**

Eskatzaileek **titularkide bakar bat** jarri ahal dute saltokia eskatzean. **Nahitaez adierazi beharko du eskabidea aurkeztean** titularkiderik izango duen ala ez, eta haren izen-deiturak eta NAN zenbakia jakinarazi.

Helbide bakoitzeko bi eskaera onartuko dira gehienez.

#### **B. Eskabidea formalizatzeko bermea**

Eskabidea jaso ondoren, **300 euroko ordainagiria** jaulkiko zaie interesdunei **behin-behineko berme** gisa, eta **urriaren 25era baino lehen** ordaindu beharko dute. Ordaintzeko leku eta modu hauek baliatu ahalko dituzte:



- Kutxabank, Laboral Kutxa, Bankoa, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santanderreko edozein bulegotan, beraiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan, finantza-erakundeekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martineko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, beheko solairua), dirutan, txeke bidez edo finantza-erakunderen batekin hitzartutako kreditu-txartela baliatuz. Ordutegia: 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Telefonoak : 010 eta 945 16 11 00.
- Internet bidez: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>

Esleipendun izanez gero, berme hori behin betiko bermetzat joko da, sor daitezkeen aparteko gastuei eta oinarri hauetan jasotako betebeharrak bete ez izanari erantzuteko.

Prozeduran esleipendun ez direnei itzuli egingo zaizkie behin-behineko bermeak, itxarotzerrendako lehen bost pertsoneri izan ezik. Kasu hauetan, behin betiko esleipenak egin ondoren itzuliko zaie.

Behin betiko bermea aparteko gasturik izan ez dela eta bete beharrak ondo bete dituztela egiaztatu ondoren itzuliko da.

### **C. ESLEIPEN-PROZEDURA**

Honako irizpide hauek hartuko dira aintzak saltokiak esleitzeko orduan (eskabidearen titularrari dagokionez):

#### **1 Prozedura orokorra**

##### **1.1 Eskatzaileak eskulanen salmenta ibiltarian duen profesionaltasuna: 3 eguneko iraupena edo hortik gorakoa duten eskulangintza azoketan parte hartu izana azken 3 urteetan, saltoki baten titular gisa ..... puntu 1, gehienez.**

- 0,25 puntu eskulangintza azokako.

Gasteizko Udalak sustatutako eskulangintza azoketan parte hartu izana Udalak ofizioz egiaztatu eta balioetsiko du.

##### **1.2 Eskulangintza enpresen erregistro ofizialean izena emanda egotea, eskatzaileak azokan merkaturatuko duen produktu guztiei dagokion kategorian .....5 puntu, gehienez**



**1.3 Azken hiru urteetan, Europar Batasunean, marketinarekin, bezeroari arreta eskaintzearekin, saltokiaren irudiarekin edo eskulangintza ekoizpenarekin loturiko prestakuntza ikastaroetan parte hartu izana ..... puntu 1, gehienez**

- 15 prestakuntza-ordu: **0,25 puntu.**
- 16-30 prestakuntza-ordu: **0,5 puntu.**
- 31-45 prestakuntza-ordu: **0,75 puntu.**
- 46-60 prestakuntza-ordu: **puntu 1.**

**1.4 Bezeroari arreta euskaraz egiteko aukera** puntu 1, gehienez.

**1.5 Merkaturatzen diren produktuen eta prestatze-prozesuaren oroitidazki deskriptiboaren (pape-rezkoa) kalitatea: produktuen ekoizpena, materialak edo lehengaiak eskuratzea, erabilitako lanabesak** 4 puntu, gehienez.

- Muntatu nahi den saltokiaren itxuraren irudia, eta saltokiaren kalitatea..... Puntu 1, gehienez
- Egiteko prozesuaren deskribapen XEHATUA, argazkiak barne (zenbat eta deskribapen hobea eta produktu kopuru handiagoa, orduan eta puntuazio handiagoa).....2 puntu, gehienez
- Produktuen orijinaltasuna.....Puntu 1, gehienez

**1.6 Eskabidearen titularrak % 33ko edo hortik gorako elbarritasun edo ezintasunen bat izatea.....0,25 puntu**

Saltoki baino eskabide gehiago badago, adierazitako irizpideen arabera lortutako puntuak hartuko dira kontuan lehenik. Ondoren, aurreko irizpideekin sortu ahal izan diren berdinketak ebazteko, merkataritzako sortaren irizpideari jarraituko zaio. Irizpide hori erabakigarria ez bada, aurreko irizpideak aintzat harturik puntu gehien lortu dutelarik lizentziarik lortu ez duten eskabideei esleituko zaizkie saltokiak, zozketaren bidez.

Esleipendunen saltokien kokapen zehatza zehazteko, zozketa publikoa egingo da azaroaren 18ko 12:00etan San Martineko udal bulegoko Ekitaldi Aretoan (Teodoro Doublang, 25).



## **2 Gizarteratze enpresentzako prozedura**

Gizarteratze enpresen eskaerak Udal Erregistroan sartutako hurrenkeraren arabera ordenatuko eta lehenetsiko dira.

Etxolak betetzeko nahikoa eskatzaile izango ez balira, gainerako eskatzaileei eskainiko litzaieke.

### **D. Emaitzak argitaratzea eta esleipendunek aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Esleipendunen eta erreserban geratutakoen zerrendak 010 telefonoan eta udalaren web-orrian ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) egongo dira eskuragarri, **azaroaren 16tik aurrera**.

Halaber, Esleipendunen saltokien **kokapen zehatza** zehazteko egingo den zozketaren emaitza webgune horretan argitaratuko da **azaroaren 19an**.

Esleipendun suertatzen direnek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte **azaroaren 21etik abenduaren 2ra bitartean**:

1. Bai titularrari bai titularkideari dagozkien **Gizarte Segurantzako azken ordainagiri**en fotokopiak, edo dagokion **Gizarte Segurantzaren erregimenean alta** emanda egotearena.
2. Erantzukizun zibileko **aseguruaren poliza** eta haren **ordainagiria**.
3. Ekonomia Jardueren gaineko Zergako salmenta ibiltariaren epigrafeko alta eta bajen ziurtagiria. (Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du honako dokumentazioa).
4. Jabearen eta jabekidearen **txartel tamainako argazki bana**.

Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko ditu agiria hauek:

5. Ekonomia jardueren gaineko zergako salmenta ibiltariaren epigrafeko alta eta bajen ziurtagiria.
6. Azokan parte hartzetik sortutako gastuen eta bermearen ordainagiriak ordaindu izanaren egiaztatzea.

Erreserbako zerrendan dauden pertsonen artean esleituko dira epe barruan jaso ez diren baimenak, zerrendan ezarritako ordenaren arabera.



## VI. ORDAINAGIRIAK ORDAINTZEA

---

Gasteizko Udalak 3 ordainagiri igorriko dizkie esleipendunei Eguberrietako Azokan parte hartzeak sortutako gastuei aurre egiteko.

2022an, honela banatuko dira beste bi ordainagiriak:

- 1.000 euroko ordainagiria, egituraren gastuei aurre egiteko: ekitaldiarekin lotutako muntatze eta desmuntatze lanak, barruko saltokiak, mantentzea, garbiketa, segurtasuna, argiztapena, errotulazioa, berokuntza eta elektrizitate kontsumoa. Udalak kontratu horiek esleitu ondoren kostu osoa kopuru hori baino txikiagoa bada, dagokion kopurua itzuliko zaio esleipendunari.
- 185,17 euroko ordainagiria, 2022an bide publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasari dagokiona.

Ordaintzeko leku eta modu hauek baliatu beharko dituzte esleipendunek ordainagiriak ordaintzeko:

- Kutxabank, Laboral Kutxa, Bankoa, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santanderreko edozein bulegotan, beraiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan, finantza-erakundeekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martineko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, beheko solairua), dirutan, txeke bidez edo finantza-erakunderen batekin hitzartutako kreditu-txartela baliatuz. Orduategia: 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Telefonoak : 010 eta 945 16 11 00.
- Internet bidez, web orri honetan: [sede electrónica /pago online](#).

**Azaroaren 22tik 30era bitartean ordainduko dira bi ordainagiri horiek, eta ezinbestekoa izango da ordaintzea behin betiko esleipena lortzeko.**

Covid-ek eragindako arrazoiak direla medio, azoka guztiz edo partzialki bertan behera utziz gero, ordaindutako ordainagiriaren itzulketa osorik edo proportzioan egingo da.





Halaber, saltzeko lizentzia emango bazaio, **deialdia egin duen tokiko administrazioari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki beharko ditu** eskabidea egiten duen pertsonak.

Gasteizko Udalak ofizios egiaztatuko du bi betekizun horiek betetzen diren.

Titularrak zein titularkideak Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta emanda egon beharko dute azokak irauten duen denbora osoan.

## VII. LIZENTZIAK JASOTZEKO TOKIA ETA EPEA

---

V. atalean adierazitako agiriak aurretiaz aurkeztu direlarik Udalaren bulego teknikoetan — Teodoro Dublang, 25— **jaso beharko dira** lizentziak, **abenduaren 14tik 16ra bitartean** — ordutegia: 8:30etik 14:00etara—. Titularrak edo titularkideak jaso beharko dute, nortasun agiria aurkeztuta; Europar Batasunaz kanpokoan kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen lan eta egoitza baimenaren fotokopia aurkeztu beharko dute. Era berean, hirugarren bati ahalmena eman ahal izango zaio baimena jaso ahal izateko, idatziz baimentzen badu eta NANaren edo horren baliokidea (Europar Batasunaz kanpokoan kasuan) den fotokopia erakutsita.

## VIII. SALTOKIAK JARTZEKO BALDINTZAK

---

1. Oinarri hauetan adierazitako lekuan saltzeko balioko du bakarrik bide publikoa okupatzeko lizentziak. Hiriko beste tokietan debekatuta dago salmenta ibiltaria, aldeztatik baimena eman ez bada.
2. Salmentarako lizentziak esleitutako postuan saltzeko baino ez du balioko, 2022eko abenduaren 16ko 12:00etatik 2023ko urtarrilaren 6ko 21:30etara (biak barne).
3. Bide publikoan egiten diren salmentek bat etorri beharko dute Gasteizko Udalerriari Salmenta Ibiltaria arautzeko Ordenantzak eta geroko aldaketek eta ebazpen honek ezartzen dutenarekin.
4. Lizentzia pertsonala da, eta titularra edo titularkidea arduratuko dira bezeroekin zuzenean aritzeaz (ez da beharrezko saltokian biak batera egotea). Saltokia gobernatzeko bertan egongo diren pertsona bakarrak berak izango direla hitz ematen dute.
5. Esleipendunek datu hauek erakusgai izango dituzte, jendeak zein ikuskatzaileek erraz ikusteko moduan:



- Eguberrietako azokan kaleko salmenta egiteko udal baimena.
  - Jarduerak eragin ditzakeen erreklamazioak jasotzeko helbidea.
6. Saltokia hornitu eta muntatzeko lanak abenduaren 15ko 10:00etatik aurrera egin ahal izango dira.
7. **Salmentarako ohiko ordutegia** hauxe izango da: 10:30etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:30etara, salbuespen hauekin:
- Abenduaren 24an eta 31n 21:00etan itxiko da.
  - Urtarrilaren 1ean ez da goizean irekiko.
  - Urtarrilaren 5ean ez da eguerdian itxiko.

Salmentarako ordutegia bete egin beharko da, eta saltokiek irekita egon beharko dute horren barruan.

8. Eguberrietako Azoka urtarrilaren 6ko 21:30etan emango da bukatutzat. Egun horretan ere gaueko zaintza zerbitzua egongo da, betiko ordutegian; beraz, urtarrilaren 6ko 21:30etatik urtarrilaren 7ko 10:00etara karpa itxita egongo da.
9. Saltoki bakoitzaren argindar potentzia gehienez 600 watterkoa izango da.
10. Esleipendunek indarrean dauden araudi guztiak bete beharko dituzte. COVID-19aren aurkako segurtasun-baldintzak kontuan hartuta, unean-unean indarrean dagoen araudi espezifikoa bete beharko da.
11. Probalekua erabiltzeko interesa duten esleipendunek, probalekuaren erabilpen egokiaz arduratu beharko dute, eta, erabilera bakoitzaren ondoren, hura desinfektatu beharko dute.
12. Esleipendunak arduratuko dira azokako sarreretan publikoarentzako eskuragarri egongo den gel hidroalkoholikoa jartzeaz, azoka iraun bitartean.
13. Gasteizko Udalak ekitaldiaren kokalekua arrazoi teknikoak edo ezinbesteko arrazoiak direla medio aldatzeko eskubidea izango du, eskatzaileei garaiz jakinarazita. Kokapen eta antolaketa indarrean dagoen araudiaren mende egongo da.
14. **Berariaz debekatzen da:**
- Industrialki egindako produktuak saltzea, hala nola, imitaziozko bitxiak, ordulariak, elektronika-gaiak edo bestelako ikus-entzunezkoak, elikagaiak, edozein motatako edariak, liburuak, kaseteak, bideo-zintak, diskoak, arropa, oinetakoak eta beste.
  - Piercing nahiz tatuatze iraunkorrik egitea.



- Ezin izango da ibilgailurik sartu azoka egingo den guneko zolatutako eremuan, baimendutako ordutegitik kanpo, eta baldintzetatik at.
- Saltokiek megafonia indibiduala jartzea.
- Salmenta ibiltarirako egokitutako leku itxian erretzea.
- Esleitutako saltokiaren kanpoko egituratik zintzilik edo saltokiaren azaleratik kanpo erakusgaiak jartzea, bai eta esleipendunaren merkataritzako izena adierazten duen errotulua ikustea galarazten duten produktuak ipintzea.
- Igarobideetan eta jendaurreko ordutegiaren barruan pertsonak edo igarotzea eragozten duten gauzak (aulkiak, eskailerak, kutxak, salgaiak, etab.) egotea.

Kosmetikako eta higieneko artisaу-produktuak soilik jarri ahal izango dira salgai produktu kosmetikoak arautzen dituen otsailaren 23ko 85/2018 Errege Dekretuan jasotako etiketatze-araudia betetzen bada.

15. Artisaу kosmetika eta higiene produktuen kasuan, kosmetika produktuei buruzko 1599/1997 Errege Dekretuan etiketei buruzko araudian xedatutakoa betetzen dutenak saldu ahal izango dira bakarrik.
16. Segurtasun arrazoiak direla eta, beharrezkoa da saltokietako hornitzaileari su-itxalgailu bat etxola barnean jartzeko baimena ematea.

## IX. HUTSEGITEAK ETA ZIGOR ERREGIMENA

---

Kaleko Salmenta arautzeko Udal Ordenantzaren VI. kapituluko 34. artikuluan adierazten da nola sailkatzen diren arau-haustekak.

Dituzten zaintza eta kontrol zereginen barruan, udal agintariak bermatuko dute ebazpen honetan jasotako xedapenak, kaleko salmenta arautzeko ordenantzan finkatutakoak eta jarduerari nahiz saltzen diren produktuei aplikagarri zaizkien gainerako lege-arauak betetzen direla. Behar diren kontrol-ekintzak entitatereen bati eskuordetzen badizkio, horrek egindako txostenak har ditzake oinarritzat Gasteizko Udalak.

Araudi hori betetzen ez bada, arauzko dossier zigortzailea izapidetzeari ekingo zaio, dela ofizioz, dela eskumena duen organoak edo interesdunen batek hala eskatzen duelarik.

Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena dosierra abiarazteko eta, behar izanez gero, egokituz jotzen duen erabakia hartzeko.



Probidentzia baten bitartez abiaraziko da dosier zigortzailea; jakinaren gainean jarriko dira ustezko arau-hausleak eta, aldi berean, arrazoiak eta inguruabarrak azalduko zaizkie, baita ustez zein arau hautsi duten eta dosierra bideratzeko idazkari eta instruktore nortzuk izendatu diren ere, eta hamabost egun naturaleko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako legedi orokorrean aurreikusitakoa aplikatzeaz gain, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira arau-haustek, honela, zehazki:

<b>Arau-haustek</b>	<b>Zigorak</b>
Azokaren ordutegia ez betetzea	100 €
Saltokian baimenik ez duten pertsonak egotea	100 €
Kanpoko espazioan salgaiak edo beste gauza batzuk uztea	50 €
Erreklamazio-orririk ez izatea	50 €
Udalaren baimena jendaurrean ez erakustea	50 €
Aurrekoak behin baino gehiagotan egitea	Ezarritakoaren bikoitza
Ez baimendutako produktuen salmenta (Industrialki egindako produktuak edo Eskulangintza Enpresen Erregistro ofizialaren kasuan, aitormena ez betetzea)	Salmenta-baimena galtzea eta saltokia utzi